

«Arloa»

1

2018/04/24an EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 24/04/2018

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegría

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaría
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegría
Aintzane Agiriano Errasti.
Nestor Arana Arexolaleiba
Rafael Bernal Gato
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko apirilaren 24an, arratsaldeko seiak eta erditan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegría alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri bilerara Edorta Barandiaran García.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 24 de abril de 2018, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegría, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Edorta Barandiarán García.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

«Arloa»

2

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2018/02/27 eta 2018/03/22.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK

2018ko martxoaren 18ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da 4, 5, 6 eta 7/2018 kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

3.- ESKORIATZAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA.

Langileen legezko ordezkariekin negoziatu ondoren onartzeko proposatzen den errekurtoak arrazionalizatzeko programaren bidezko plan estrategikoaren edukia ikusi eta ezagutu da.

Plan horrek Eskoriatzako Udaleko langileen Lan baldintzak arautzeko Udalbatzarrak 2008ko azaroaren 26an hartutako erabakia berresten du, bereziki, adinagatik borondatezko erretiroari buruzko XI. kapituluko xedapenak.

Horiek horrela, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Dokumentuan bertan jasotzen diren aurrekarien eta bertan jasotako legezko oinarri eta arrazoibideen arabera, onartzeko proposatzen den giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren bidezko plan estrategikoa onartzea.

Bigarrena.- Erabaki honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik izango du eragina.

Hirugarrena.- Ondorio administratibo guztiak izan ditzan eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea bete dadin, giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren bidezko plan estrategikoa argitaratu dadila agintzea.

4.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEn ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalak, besteak beste, honako hobaria aurreikusten du familia ugarentzat:

3.1.4.- Familia ugaria diren subjektu pasiboei, honako hobari hauek aplikatuko zaizkie zergaren kuota osoan. Hobaria bizikidetza unitatearen bost plaza edo gehiagoko ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

Ohiko Osoko Bilkura

Pleno ordinario

«Arloa»

3

Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldaterekiko (LAGS)					
	x ≤ LAGS	x: LAGS + %10 arte	x: LAGS + %20 arte	x: LAGS + %30 arte	x: LAGS + %50 arte	x: LAGS + %60 arte
3	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%45	%45	%40	%25	%15	-
5 edo >	%50	%45	%45	%40	%25	%15

X = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

“Hobaria aplikatu ahal izateko, interesatuek hobaria egiteko eskatu beharko dute. Diru laguntza eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien “hileko soldata mailaren” berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Ogasun Batzorde informatzailearen txostena jaso ondoren”.

Eskaerari buruzko txostena egin ahal izateko, Gizarte Zerbitzuetako teknikariek Gipuzkoako udalekin informazioa trukatzeko hitzarmenaren D3-Gizarte Zerbitzuak eranskinean aurreikusitako gaitasun ekonomikoari buruzko ziurtagiria eskatu beharra dute.

Kontuan izan behar da ziurtagiri hori ofizioz eskatu daitekeela bakarrik hobaria arautzen duen araudian bertan agertzen diren datu ekonomikoak egiazatzeko beharra jasotzen denean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuak aurreikuspen hori ordenantzaz sartzeko eskatzen du.

Horretarako, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guziek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Proposatutako aldaketa onartzea, hau da, indarrean dagoen ordenantzak *familia ugariko subjektu pasibo direnen aldeko* hobariari buruz ondorengo baldintza sartzea:

X = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

“Hobaria aplikatu ahal izateko, interesatuek hobaria egiteko eskatu beharko dute. Diru laguntza eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien “hileko soldata mailaren” berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Ogasun Batzorde informatzailearen txostena jaso ondoren”.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

«Arloa»

4

Bizikidetza unitatearen baliabideak zehazteko (familia unitateko kideen soldatak) eskatzailearen eta unitate horretako gaineko kideen azken PFEZaren zerga-oinarria hartuko da kontuan.

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Hirugarrena.- Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki beririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

5.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalak, besteak beste, honako hobaria aurreikusten du familia ugarentzat:

5. Ohiko bizilekua denean, kuota osoko hobari hauek aplikatuko zaizkie familia ugaria diren subjektu pasiboei.

Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)					
	x ≤ LAGS	x: LAGS + %10 arte	x: LAGS + %20 arte	x: LAGS + %30 arte	x: LAGS + %50 arte	x: LAGS + %60 arte
3 4 5 edo >	%45 %45 %50	%40 %45 %45	%25 %40 %45	%15 %25 %40	- %15 %25	- - %15

X = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

“Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien “hileko soldata mailaren” berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Ogasun Batzorde informatzailearen txostenaren jaso ondoren”.

«Arloa»

5

Eskerari buruzko txostena egin ahal izateko, Gizarte Zerbitzuetako teknikariek Gipuzkoako udalekin informazioa trukatzeko hitzarmenaren D3-Gizarte Zerbitzuak eranskinean aurreikusitako gaitasun ekonomikoari buruzko ziurtagiria eskatu beharra dute.

Kontuan izan behar da ziurtagiri hori ofizioz eskatu daitekeela bakarrik hobaria arautzen duen araudian bertan agertzen diren datu ekonomikoak egiazatzeko beharra jasotzen denean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuak aurreikuspen hori ordenantzan sartzeko eskatzen du.

Horretarako, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Proposatutako aldaketa onartzea, hau da, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzeko indarrean dagoen ordenantzan *familia ugariko subjektu pasibo direnen aldeko* hobariari buruz ondorengo baldintza sartzea:

X = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

"Hobaria aplikatu ahal izateko, interesatuek hobaria egiteko eskatu beharko dute. Diru laguntza eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien "hileko soldata mailaren" berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Ogasun Batzorde informatzailearen txostena jaso ondoren".

Bizikidetza unitatearen baliabideak zehazteko (familia unitateko kideen soldatak) eskatzailearen eta unitate horretako gaineko kideen azken PFEZaren zerga-oinarria hartuko da kontuan.

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Hirugarrena.- Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki beririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

6.- AURREKO URTEETAN ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratuta egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoitztua egoteagatik edo beste arrazoiren batzuengatik aurreko ekitaldietatik kobraatu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako expedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde expedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

«Arloa»

6

Preskripzioagatik kobrazeke dauden eskubideen baja:

KONTZEP/EPEA/ZENB.	ZENBATEKOA €	ZERGADUNA	ZERGATIA
MULTA 2012/304	50,00	ALVAREZ MARIA	RODRIGUEZ PRESKRIPTZIOA

Bidezkoak ez izateagatik kobrazeke dauden eskubideen baja:

KONTZEP/EPEA/ZENB.	ZENBATEKOA €	ZERGADUNA	ZERGATIA
028/2017/32	5.061,49	VILLAR OTADUY JAVIER	OBRA EZ DA EGIN ETA OBRA ZERGA ORDAINTZEKE DAGO. E355/2018

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuengatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaratutako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

7.- SANTA ANA 12-KO JABEKIDEEK EIOZEAN HOBARIA JASOTZEKO EGINDAKO ESKAERA.

Eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean % 90eko hobaria aitortzeko eskaera egin dute Santa Ana 12.eko jabekideek 2018ko martxoaren 15ean.

Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zerga arautzen duen udal ordenantzan ondorengo hobaria jasotzen da:

5.3.3.5. Kuotan %90eko hobaria izango dute igogailua jartzeko obrek, baldin eta eraikinak bisolairu edo gehiago baditu, bere erabilera nagusia etxebizitzatarako bada, eta instalazioa bat baldin badator berariaz egindako udal ordenantzaren edota planeamenduan exijitzen diren baldintzak. Hobari hauetarako eskubiderik ez da izango igogailu zaharren ordez berria jartzeko obrak direnean; ezta igogailua familiabakarreko edo familia biko etxeetarako denean ere (berdin da etxeak banakakoak edo atxikitakoak izan), eta oro har, ez dute eskubiderik izango promotore eta kontratistek egindako eraikuntza berrietan jarritako igogailuek (nahiz eta eraikuntza berria zaharraren ordez eraiki).

Aurreko paragrafoan esaten den ordenantza onartu bitartean, Udalbatzarra izango da eskuduna hobariak onartzeko, eta horretarako baldintza hauek bete behar dira:

Igogailua eraikinaren barruan jarri beharko da.

Obrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

«Arloa»

7

Aukera guztien artetik, etxebizitzetara irisgarritasunik onena eskaintzen duen instalazioa jarri beharko da.

Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoan antzekoa izan beharko da.

Lurzoru publikoan eta lerrokaduretan ahalik eta txikienak izango dira kalteak.

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostenaren arabera, jarritako igogailuak ordenantzan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditu.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Santa Ana 12ko jabekideei % 90eko hobaria ematea eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean.

8.- KREDITUAK ALDATZEKO 8. ESPEDIENTEA.

Kredituak aldatzeko 8. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena irakurri da, non adierazten bai aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 8. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.622.323.40.01 2018	LUIS ECEIZA IKASTETXEA	12.108,00	8.072,00	20.180,00
1 0100.625.323.40.01 2018	ALTZARIAK:LUIS EZEIZA IKASTETXEA	6.003,29	4.002,20	10.005,49
1 0100.227.162.10.13 2018	MANKOMUNITATEA:HONDAKIN BILKETA	169.477,87	5.703,57	175.181,44

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAA3ZE5J>

«Arloa»

8

1 0100.227.162.30.13 2018	MANKOMUNITATEA:HONDAKIN TRATAMEN	96.096,83	7.495,14	103.591,97
1 0400.227.324.00.13 2018	MANKOMUNITATEA:HEZKUNTAZA	1.058,36	232,84	1.291,20
1 0200.421.920.00.01 2018	MANKOMUNITATEA:ADMON. OROKORRA	46.371,92	299,68	46.671,60
1 0100.721.162.30.01 2018	MANKOMUNITATEA:EPELE	0,00	28.554,00	28.554,00
1 0400.721.324.00.01 2018	APORTAZIOA:MANKOMUNIT:HEZKUNTAZA	260,39	0,47	260,86
1 0500.721.241.00.01 2018	MANKOMUNTATEA:ENPLEGUA	65,10	0,12	65,22
1 0500.721.432.00.01 2018	APORTAZIOA:MANKOMUNIT:TURISMO	97,65	0,17	97,82
1 0100.601.165.00.01 2018	ARGITERIA PUBLIKOA	52.460,72	11.640,44	64.101,16
1 0100.622.933.00.01 2018	ERAIKUNTAZA:SANTA ANA 4	0,00	5.800,00	5.800,00
1 0400.481.341.20.01 2018	DIRU LAGUNTZA:ESKORIA.KIROL ELKARTE	23.500,00	2.680,00	26.180,00
1 0100.421.410.00.01 2018	APORTAZIOA:DEBAGOIENEKO LANDA GARAPEN	9.501,72	95,00	9.596,72
1 0100.421.431.40.01 2018	APORTAZIOA:ZUBILLAGA HILTEGIA	9.009,50	4.157,50	13.167,00
1 0100.212.160.00.01 2018	MANTENIMENDUA:ESTOLDERIA	5.140,00	2.250,00	7.390,00
1 0100.227.171.00.15 2018	KONTRATUA:PARKE LORATEGIEN MANTENIMENDUA	132.830,07	1.500,00	134.330,07
GUZTIRA		563.981,42	82.483,13	646.464,55

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2018	DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETAR	82.483,13

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAA3ZE5J>

Ohiko Osoko Bilkura

Pleno ordinario

«Arloa»

9

FINANTZAKETA GUZTIRA	82.483,13
----------------------	-----------

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta expediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

9.- GAI ZERRENDAN GAI HAU SARTZEA BERRESTEA: HERRIKO JAI EGUNA

Dagokion batzordearen diktamena izan gabe gaia gai zerrendan sartzeko arrazoia azalduta eta justifikatutzat jota gai zerrendan sartzea, aho batez onartu da gaia aztertzea.

Ondoren, bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, 2019ko herriko jai eguna ekainaren 29a izendatzea erabaki da.

10.- GIZARTE ZERBITZUETAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2017ko apirilaren 27an egindako bilkuran, beraien jarduera gizarte zerbitzuen alorrean egiten duten elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarriak hasiera batean onartu zituen.

Oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2017ko maiatzaren 5ean, eta jendaurrean egoteko epea igarota inolako alegaziorik aurkeztu gabe, 2017ko ekainaren 19ko Alkate erabakiz 2017rako deialdia onartu zen.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (122. zenbakia) argitaratu zen 2017ko ekainaren 27an.

Udalbatzarrak, 2017ko uztailaren 20an egindako bilkuran, oinarri horietako 12. artikulua aldatu zuen, *Estatuaren abokatutzak horrela eskatuta*.

Estatuaren abokatutzaren errekurtoak saihestu ahal izateko, artikulu horretan beste aldaketa bat egitea proposatzen du Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak.

Egindako proposamena ikusi eta eztabaidatuta, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Beraien jarduera gizarte zerbitzuen alorrean egiten duten elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarrietan honako aldaketak egitea:

Honako hau dioen lekuan:

12. artikulua. Euskararen erabilera

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario

«Arloa»

10

Diru laguntzaren helburu den jarduera, proiektu edo programari buruz herritarrei zuzendutako komunikazioetan ondorengoak izango dira kontuan:

— Idatzizko komunikazioak (kartel, iragarki, esku-programa, liburuxka, ohar...) euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Ele bitan idatziz gero, euskarari emango zaio lehentasuna beti. Testuak zuzen idatzita daudela egiazatzeko, Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da.

— Ahozko komunikazioak ere (hitzaldiak, zabalkunde kanpainak prestakuntza ikastaroak...) euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko dira, eta betiere, euskarari emango zaio lehentasuna erdarakoaren aurretik azalduz.

Honako hau esatea:

12. artikulua. Euskararen erabilera

Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazioa emateko egingo den publizitate edo propagandan, euskara erabiltzera joko da. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen badira, euskarari emango zaio lehentasuna.

Bigarrena.- Aldaketak jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzan. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, aldaketa horiek behin betiko onartutzat joko dira erabaki berririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikuluak.

11.- GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO LANKIDETZA PROGRAMAN DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2017ko apirilaren 27an egindako bilkuran, GARAPEN-BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO LANKIDETZA PROGRAMA ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK hasiera batean onartu zituen.

Oinari horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2017ko maiatzaren 5ean, eta jendaurrean egoteko epea igarota inolako alegaziorik aurkeztu gabe, 2017ko ekainaren 19ko Alkate erabakiz 2017rako deialdia onartu zen.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (122. zenbakia) argitaratu zen 2017ko ekainaren 27an.

Udalbatzarrak, 2017ko uztailaren 20an egindako bilkuran, oinari horietako 12. artikulua aldatu zuen, Estatuaren abokatutzak horrela eskatuta.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

«Arloa»

11

Estatuaren abokatutzaren errekursoak saihestu ahal izateko, artikulu horretan beste aldaketa bat egitea proposatzen du Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak.

Egindako proposamena ikusi eta eztabaidatuta, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Garapen-bidean dauden herrialdeekiko lankidetza programa eta diru laguntzak emateko oinarriean honako aldaketak egitea:

Honako hau dioen lekuan:

13. artikulua. Euskararen erabilera

Diruz lagundutako jarduerarekin, proiektuarekin edo programarekin lotutako komunikazioak Eskoriatzako/EEAko herritarrei zuzenduta daudenean, erakunde onuradunaren obligazio izango da baldintza hauek betetzea:

— *Idatzizko komunikazioak (kartel, iragarki, esku-programa, liburuxka, ohar...) euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Ele bitan idatziz gero, euskarari emango zaio lehentasuna bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak zuzen idatzita daudela egiazatzeko, Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da.*

— *Ahozko komunikazioak ere (aurkezpen saioak, sensibilizazio hitzaldiak...) euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko dira, eta betiere, euskarari emango zaio lehentasuna erdarakoaren aurretik azalduz.*

Honako hau esatea:

13. artikulua. Euskararen erabilera

Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazioa emateko egingo den publizitate edo propagandan, euskara erabiltzera joko da. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen badira, euskarari emango zaio lehentasuna

Bigarrena.- Aldaketak jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzan. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, aldaketa horiek behin betiko onartutzat joko dira erabaki beririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikuluak.

12.- MERKATARITZA ESTABLEZIMENDU BAT IREKITZEKO EMANDAKO DIRU LAGUNTZAN EGINDAKO AKATSA ZUZENTZEA. (alokairua)

2017ko otsailaren 21ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak ESKORIATZAN HUTSIK DAUDEN LOKALAK BALIOAN JARRIZ MERKATARITZA EDO ZERBITZU ARLOKO ESTABLEZIMENDU BERRIAK IREKITZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK hasiera batean onartzea erabaki zuen.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

Ohiko Osoko Bilkura

Pleno ordinario

«Arloa»

12

Oinarri horiek 2017ko martxoaren 2an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Udalbatzarrak, 2017ko martxoaren 28an egindako bilkuran, hasiera batean onartutako oinarrieta hainbat aldaketa onartu ziren eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2017ko apirilaren 12an. Jendaurrean egoteko epean alegaziorik aurkeztu ez zenez, hartutako erabakiaren arabera oinarri horiek behin betikotzat jo ziren beste erabakirik hartu behar izan gabe.

COMPOSTELA Tabernako Usune Bengoa Floresek, 72746059A NAN zenbakidunak, 1.997 sarrera zenbakia duen eskaera egin zion Eskoriatzako Udalari, hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntza eskatzeko.

Arloko teknikariak egindako diru laguntza kopuruaren proposamenarekin bat etorri, Garapen Ekonomiko Jasangarria batzordeak, 2018ko otsailaren 12an izandako bileran, aho batez, erabaki zen Udalbatzarrari honako hau proposatzea:

- *Usune Bengoa Flores andreatsi ondorengo diru laguntza ematea COMPOSTELA TABERNAko alokairua ordaintzeko, hurrengo 24 hilabetetan:*
 - Lehenengo urtean, 2018ko apirilaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra arte: 195 € /hileko
 - Bigarren urtean, 2019ko apirilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra arte: 130 € /hileko
- *Gastu hori onartzea eta honela banatzea:*
 - 1.755 €ko gastua 0500.481.431.00.01 partidaren kontura
 - 1.755 €ko gastua 2.019. urteko aurrekontuaren kontura
 - 390 €ko gastua 2.020. urteko aurrekontuaren kontura

Udalbatzarrak, 2018ko otsailaren 27an egindako bilkuran, diru laguntza emateko erabakia hartu zuen proposamenarekin bat etorri.

Hori horrela izanik ere, akats material bat antzeman zen bigarren urteko diru laguntzaren kalkuluan. Izan ere “hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak arautzeko” oinarrietako 5. artikuluan ondorengoa aipatzen zen:

5.- Laguntza motak.

Ondoren ezartzen dira emango diren gehienezko diru-laguntzak:

- Alokaturako lokalak:

1. urtean – alokairu-kostuaren % 30 onartuko du Udalak eta gehienez 200 € hileko.
2. urtean – alokairu-kostuaren % 20 onartuko du Udalak eta **gehienez 100 € hileko.**

BEZA ez da diruz lagunduko.

Udalak emango duen diru-laguntza alokairua ordaintzeko izango da, gehienez ere, 24 hilabetetan.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

Ohiko Osoko Bilkura

Pleno ordinario

Antzemandako akatsaren berri eman zitzaion interesdunari, eta 10 eguneko epea eman entzunaldi tramiterako bere interesak edo eskubideak babesteko egoki iritzitako alegazioak aurkez zitzan. Epe horretan ez zuen inolako alegaziorik aurkeztu.

Aurrez esandakoan oinarrizuz, eta Garapen Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Bat: 2018ko otsailaren 27an egindako bilkuran hartutako erabakian egindako akatsa zuzentzea, eta Compostela taberna dagoen lokaleko alokairua ordaintzeko Usue Bengoa Flores andreari emandako diru lagunza bigarren uterako (2019ko apirilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra) hileko 130 €-tan finkatzea.

Bi: Akatsa zuzendu ondoren, gastu onarprena honela banatzea:

- 1.755 €ko gastua 0500.481.431.00.01 partidaren kontura
- 1.485 €ko gastua 2.019. urteko aurrekontuaren kontura
- 300 €ko gastua 2.020. urteko aurrekontuaren kontura

Hiru: Interesdunari gogoraraztea lehen HIRU hilabeteko diru lagunza jabeari alokairua ordaindu diola egiazatzeko dokumentuak aurkezu ondoren ordainduko dela. Ondorengo diru laguntzak hiru hilero ordainduko dira, hiru hile bakoitzari dagokion alokairua ordaindu dela egiazatzeko dokumentuak aurkezu eta gero, eta zerga betebeharrok, Gizarte Segurantzarekikoak eta Eskoriatzako Udalarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren

Lau: Erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta berorren aurka jar daitezkeen errekursoen berri ematea.

13.- HIE 9 SANTA MARINAN LURZATIAK ALOKATZEA IBILGAILUENTZAKO DOAKO APARKALEKU BEZALA ETA ESPAZIO LIBRERAKO ERABILTZEKO.

Eskoriatzako herrigunean, eta, zehazki, gune historikoaren inguruan, aparkaleku falta handia dago, behin eta berriz herritaren kexa eragiten duena. Aparkatzeko behar beste lekukik ez egoteak eragin okerra du herritaren eguneroko bizitzan eta baita herriko merkataritzan eta ekipamendu publikoen funtzionamendu normalean.

Udalak arazoa konpontzea nahi du, baina ez dago espazio publiko libreriak aparkalekutarako erabiltzeko, eta ezta udalaren jabetzako lurzorurik horretarako erabil daitekeenik ere.

ARBIETXE S.L. eta GUNEKA S.L. enpresak Santa Marina 9 HIEko exekuzio unitatea birpartzelatzeko proiektutik ateratako eta herrigunean dauden ondorengo lurzatiengatik jabeak dira:

“G” lurzatia: “Santa Marina” 9. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Barne Eraberrikuntza Planak egindako antolaketaren zati da, “a.20/2” bezala agertzen da, egoitza erabilerarako, eta eremuko ipar-ekialdean kokatuta dago. 276 m²-ko azalera du eta bere osotasunean eraikigarria da.

“H” lurzatia: “Santa Marina” 9. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Barne Eraberrikuntza Planak egindako antolaketaren zati da, “a.20/2” bezala agertzen da,

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAA3ZE5J>

egoitza erabilerarako, eta eremuko ipar-ekialdean kokatuta dago. 276 m²-ko azalera du eta bere osotasunean eraikigarria da.

“I” lurzatia: “Santa Marina” 9. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Barne Eraberrikuntza Planak egindako antolaketaren zati da, “a.20/2” bezala agertzen da, egoitza erabilerarako, eta eremuko ipar-ekialdean kokatuta dago. 276 m²-ko azalera du eta bere osotasunean eraikigarria da.

“J” lurzatia: “Santa Marina” 9. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Barne Eraberrikuntza Planak egindako antolaketaren zati da, “a.20/2” bezala agertzen da, egoitza erabilerarako, eta eremuko ipar-ekialdean kokatuta dago. 276 m²-ko azalera du eta bere osotasunean eraikigarria da.

Aipatutako lurzatiek ez dute, gaur egun, inolako erabilerarik, eta beraien jabeek prest daude errentamenduan lagatzeko Udalari.

Aurrez negoziatu ondoren, jabeekin ados jartzea lortu da, eta adostutako hori formalizatu gura den kontratu pribatuan gauzatzen da, eranskin gisa doana.

Aurrez esandako guztia ikusita, Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta IRABAIZ taldeko zinegotzia (Rafa Bernal) eta EH BILDU taldeko bertaratutako 3 zinegotziak (Aitor Zubizarreta, Aintzane Agiriano eta Nestor Arana) abstenitura eta bertaratutako gainerako zinegotziek alde bozkatuta (EAJko 5 eta EEEko 1), Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Aurrekarietan deskribatutako lurzatiak alokairuan hartzeko ARBIETXE S.L. eta GUNEKA S.L. enpresekin formalizatuko den alokairu kontratua ONARTZEA.

Bigarrena.- 5.405,84 euroko gastua onartzea 0100.200.153.00.01 partidaren kargura. Diru hori kontratuaren lehenengo urterako hitzartutako alokairu prezioa da (% 21eko BEZ barne). Hitzartutako baldintzak betetzeko, alokairua berehala ordaintzeko agintza.

ERANSKINA-BALDINTZAK

LEHENENGOA.- Mikel Iñurritegui Altuna jaunak, ARBIETXE S.L. enpresaren izenean eta Josu Arregui Ugarte jaunak, GUNEKA S.L. enpresaren izenean, ekitaldi honetan JOSE RAMON ZUBIZARRETA Alkate jaunak ordezkatzen duen ESKORIAZKO UDALARI alokatzen dizkiote kontratu honetako azalpen zatiko 1. atalean aipatutako lurzatiak ibilgailuentzako doaneko aparkalekutarako eta espazio librerako erabiltzeko, biak ala biak ere erabilera publikorako.

BIGARRENA.- Lurzati bakoitzaren alokairuaren urteko errenta ondoren esango den moduan finkatzen da, dagokion BEZa barne duela. Errenta hori aurrez ordainduko da, kontratua sinatzen den hilabetea amaitu eta hamabost egunen barruan, errentatzaile bakoitzak adierazitako banketxean.

«Arloa»

15

LURZATI BAKOITZAREN ALOKAIRUARENGATIK ERRENTA:

G lurzatia: 1.351,46 €/urteko, BEZ barne
H lurzatia: 1.351,46 €/urteko, BEZ barne
I lurzatia: 1.351,46 €/urteko, BEZ barne
J lurzatia: 1.351,46 €/urteko, BEZ barne

Lurzati bakoitzerako ezarritako errentatik ondorengo portzentajea ordainduko zaio errentatzaile bakoitzari:

PARCELA G	Particip. en parcela	CANTIDAD A PERCIBIR (€)
ARBIETXE SL	100,00%	1.351,46 € IVA incluido
PARCELA H	Particip. en parcela	CANTIDAD A PERCIBIR (€)
ARBIETXE SL	100,00%	1.351,46 € IVA incluido
PARCELA I	Particip. en parcela	CANTIDAD A PERCIBIR (€)
ARBIETXE SL	45,74%	618,16 € IVA incluido
GUNEKA S.L.	54,26%	733,30 € IVA incluido
PARCELA J	Particip. en parcela	CANTIDAD A PERCIBIR (€)
GUNEKA S.L.	100,00%	1.351,46 € IVA incluido

HIRUGARRENA.- Kontratu honek 4 urteko iraupena izango du goiburuan agertzen den sinatze egunetik kontatzen hasita, eta epe hori amaitutakoan automatikoki deuseztatuta geldituko da.

Kontratua amaitu baino lehen jaberen batek berariaz eta idatziz adieraziko balu, gutxienez bi hilabeteko aurrerapenarekin, errentan emandako lurzatiren batean eraiki nahi duela, lurzatiak erabilera publikotik liberatu eta jabearen esku utzi beharko dira gehienez ere bi hilabeteko epean jakinarazpena egiten denetik kontatuta.

Eskoriatzako Udalak erabakitzat eta amaitutzat jo ahal izango du errentamendua edozein unetan, bere erabakia errentatzaileei hiru hilabete aurretik adierazita soilik, eta kontratutik betetzeke gelditzen den denborako errenta ordaintzeko beharrik gabe.

LAUGARRENA.- Bigarren baldintzak adostutako errenta eguneratu egingo da, eta horretarako Estatu Espainiarreko urtetik uterako KPlak izandako aldaketa hartuko da kontuan; baina, errenta ezin izango da inoiz izan hasieran finkatutako prezioa baino txikiagoa.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

Ohiko Osoko Bilkura

Pleno ordinario

«Arloa»

16

BOSGARRENA.- Eskoriatzako Udalak baimena du lurzati horiek aipatutako erabilerarako egokitzeko beharrezko obrak egiteko. Obra horiek Udalaren kargura eta kontura izango dira. Nolanahi ere, egindako obrak lurzatiaren onurako geldituko dira kontratua amaitutakoan, eta Toki-Administrazio errentariak ez du eskubiderik izango arrazoi horrengatik inolako kalte-ordinak eskatzeko.

Beraien aldetik, lurzatietako jabeek publizitate panelak jarri ahal izango dituzte lurzatien bazterretan sustapena merkaturatzeko, itxitura hesiak edo mugako beste elementu batzuk aprobetxatuz, baina, lurzatiak alokairuan dauden bitartean horietan aurreikusitako erabilerei eragin gabe.

SEIGARRENA.- Administrazio errentariak ezingo du inolaz ere errentan hartutako lurzatia inori utzi edo errentan eman jabeek berariaz baimenik eman gabe.

ZAZPIGARRENA.- Eskoriatzako Udalak lurzati horiek ibilgailuen doaneko aparkalekurako eta parke publikorako erabili beharko ditu ezinbestean. Hala ere, salbuespen gisa eta aldi baterako, eta betiere, errentzaileek aurrez baimenduta, lurzati horiek izaera sozial edo kulturaleko beste erabilera publiko batzuetarako erabili ahal izango dira.

ZORTZIGARRENA.- Kontratua suntsitzeko arrazoia izango dira honako hauek:

- a) Kontratuaren epea bukatzea.
- b) Errenta ez ordaintzea.
- c) Kontratu honetan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea.
- d) Kontratua aurrez erabakitzeagatik aldeetakoren batek horrela eskatuta hirugarren baldintzan adierazitakoaren arabera.

BEDERATZIGARRENA.- Errentamendua amaitzeko arrazoia edozein izanda ere, errentamendua amaitzerakoan Eskoriatzako Udalak lurzatiak itxita utzi beharko ditu, sarrera atearekin, errentamenduaren hasieran zegoen bezala.

HAMARGARRENA.- Kontratu honetan aurreikusi gabekoetarako, Kode Zibilak arautuko du alokairua.

BOTOEN AZALPENA:

* Aitor Zubizarreta: guk ez dugu gaia oso garbi ikusten, eta jarraitu den prozedurari buruzko zalantzak ditugu. Hasiera batean, bazirudien ez zela adostasunik lortzen, eta ez dakit zenbat aparkaleku plaza egokitzen ziren herrian, eta gero, oraingo hau daukagu. Bainaz ez da jabe guztiekin hitz egin. Eta, hau esaten dugu: zergatik ez jabe guztiekin? eta hor sortzen dira gure zalantza juridiko guztiak. Kontuan izanik eremu horretako OBEAk, gure zalantzak agertzen ditugu eta txosten juridikoa eskatzen dugu. Badirudi txostenetan eginda dagoela, baina, guk ez dugu jaso oraindik. Horregatik, uste dugu interesgarria litzatekeela jabe guztiekin hitz egitea. Guztiekin. Ez dakit zenbat diren, 4 edo 5, baina, bakarrik birekin hitz egin da. Prozedurari dagokionez, ikusi da 2 jaberekin ados jartzea lortu zitekeela, eta, ezin da ados jarri gainerakoekin? Eta, batzordean esan genuen bezala, zalantzak ditugu legezkotasunari buruz, erabilera publikorako zorra ea okupa daitekeen gune hori sestra azpian oraindik eraiki barik egon gabe. Horregatik

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

Ohiko Osoko Bilkura

Pleno ordinario

«Arloa»

17

guztiarengatik abstentuko gara, eta berriz ere eskatzen dugu, mesedez, jabe guziekin hitz egiteko.

* Josu: hiru kontu aipatu dituzu: lehenengoa, prozedurari buruzkoa; bigarrena, jabe guziekin negoziatu ote dugun; eta, hirugarrena, egindakoari buruzko berme juridikorik ba ote dugun. Prozedurari dagokionez, jarraitu duguna, orain arteko kasu guztieta bezala, zuzena izan da. Negoziazioei dagokienez, guk ez dugu negoziatzen negoziatu gura ez duenarekin. Eta hori Intxaurtxuetan ikusi da, hainbeste denbora pasa ondoren, jabeekin negoziatzea eta denbora luzean geldirik egon den gune bat martxan jartzea lortu baitugu. Santa Marinan antzerako zerbaiz gertatu da, iaz harremanetan jarri ginen "K" lurzatiko jabe guziekin, eta negoziazio aldi baten ondoren, birekin ados jartzea lortu dugu, gutxi gorabehera jabetzaren % 70a dutenak, eta, horiek, gure ustez, akordio on bat lortu dugu. Hirugarren kontuari dagokionez, badugu berme juridikorik. Hau denoi egin aurretik gure lege aholkulariengana jo genuen, eta oniritzia eman ziguten. Horregatik egin dugu aurrera. Egia da ez dituzuela txostenak ikusi, baina, eginda daude. Eta bilkura hau aprobetxatu gura dut batzordean esateko asmoa nuen gauza bat esateko: txosten horiek zuhurtasun osoz erabiltzea eskatzen dut, beharrezko balitz, Udalaren jarduera defendatzeko erabiliko baitira. Lasai egon, dokumentuak ikusiko dituzue, baina, zuhurtziaz eta konfidentzialtasunez erabiltzea eskatzen dut.

* Rafa Bernal: ni ere abstentu egingo naiz, nik ere ez baitut oso argi ikusten gaia. Arreta ematen dit, sei hilabete eta gero, hasierako egoerara itzultzea; hau da, lehenengo aparkalekua ixten da eta, orain, berriz ere zabaltzen da. Andeatutako gunea berreskuratu eta pasealekua egitea, aparkalekua lehen zegoen lekuaren egonda ere egin zitekeen. Besterik gabe.

14.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ESKORIATZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA.

Onartu dadin, Etxez etxeko zerbitzua finantzatzeko Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak proposatzen duen hitzarmena ikusi eta aztertu da.

Egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Etxez etxeko zerbitzua finantzatzeko proposatutako lankidetza hitzarmena sinatzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Bigarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordez sinatzeko.

15.- GALDE-ESKEAK.

15.1.- Construcciones Razkin S.L.-k ustez jarritako demanda.

Aitor Zubizarretak, esan ondoren Goiena Telebistako HARIRA saioan Alkateari ulertu ziola Construcciones Razkin S.L.-k Udal demandatu eta judiziora eraman duela, hori horrela den galdezu du.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3ZE5J>

«Arloa»

18

Josu Ezkundiak argitu du hori esan zuela, baina, zuzenekoak eragindako lapsus bat izan zela, ez dela existitzen judizio demandarik.

15.2.- Kredituak aldatzeko 8. expedienteari buruzko informazioa.

Nestor Aranak informazioa eskatu du izandako igoera handienetan arrazoiei buruz.

Eskatutako informazioa eman dio Alkateak; labur esanda, arrazoia izan da udal aurrekontua Mankomunitatekoari egoki behar zela, azken hori Udalarena baino beranduago onartu baitzen.

15.3. Ibilgailuen zirkulazioa Arana kalean.

Nestor Aranak galdeitu du ea saihesbidea itxi behar izan zenetik ordu mugarik ez duen Arana kaletik pasatzen diren ibilgailuen abiadura zaintzen den.

Aitor Zubizarretak eskatu du argitzeko ze ibilgailu mota ibili daitekeen.

Josu Ezkundiak erantzun du zaila dela abiadura kontrolatzea, horretarako dauden giza baliabideak, bi udaltzain, mugatuak direlako.

Gasteizerako norabidean pasa daitezkeen ibilgailuei dagokienez, Alkateak erantzun du bakarrik kamioiak, kamioi txikiak edo ibilgailu astunagoak pasa daitezkeela, kotxeek debekatuta dutela. Hala ere, esan du, debekuari inolako kasurik egiten ez dioten kotxeak asko direla, eta horietatik, gehienak, eskoriaztarrak. Horren aurrean, esan du, udaltzainei agindu zaiela zaintza areagotzeko eta isunak jartzeko debekua errespetatzen ez dutenei.

15.4.- Zarata mapa.

Nestor Aranak galdeitu du ea nola dagoen zarata maparen gaia.

Josu Ezkundiak jakinarazi du partida bat dagoela aurreikusita horretarako, baina, aurrekontua onartzeraoan esan zen bezala, zerbitzua kontratazko laguntzatarako deialdia ateratzeko zain daudela. Hala ere, esan du, uda osterako ez bada laguntza horretarako deialdirik egiten, mapa hori egiteko kontratazioa egitea planteatuko da gastuaren % 100 udalak bere gain hartuta.

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAA3ZE5J>

Ohiko Osoko Bilkura

Pleno ordinario

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en fechas 27/02/2018 y 22/03/2018.

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 18 de marzo de 2018 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de los acuerdos por los que se aprueban los expedientes de modificación de créditos Nº4, 5, 6y 7 /2018.

3.- PROGRAMA DE RACIONALIZACIÓN DE RECURSOS HUMANOS DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

Visto y conocido el contenido del Plan estratégico con programa de racionalización de recursos humanos cuya aprobación se propone tras haber sido objeto de negociación con la representación legal del personal, y

Resultando que el mismo ratifica el Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo del Personal del Ayuntamiento de Eskoriatza aprobado por el Ayuntamiento en Pleno el 26 de noviembre de 2008 ; especialmente en las disposiciones contenidas en el capítulo XI relativas a la jubilación voluntaria por edad; y

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, por unanimidad de los corporativos presentes se acuerda :

Primero: De conformidad con los antecedentes y fundamentos y razonamientos jurídicos que se recogen en el propio documento, aprobar el Plan estratégico con Programa de racionalización de recursos humanos cuya aprobación se propone.

Segundo: Este acuerdo surtirá efectos a partir de su publicación en el B. Oficial de Gipuzkoa

Tercero: Disponer la publicación del Plan estratégico con programa de racionalización de recursos humanos para todos los efectos administrativos pertinentes y para cumplimiento de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre de transparencia, acceso a la información y buen gobierno.

4.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA

La Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica contempla, entre otras, la siguiente bonificación para las familias numerosas:

3.1.4. Se aplicarán las siguientes bonificaciones de la cuota íntegra del impuesto a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa. La bonificación sólo se aplicará en uno sólo de los vehículos turismos de cinco o más plazas de titularidad de la unidad convivencial.

